




FITORE

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bestalde, funtsezko jarduerak, gure enpresaren negozio-ereduak funtziona dezan egin beharreko jarduerak dira. Enpresa guztietan bezala, Fitore enpresan hainbat funtsezko jarduera egin behar ditugu negozioa ondo joan dakigun eta gure balio-proposamena bete dezagun.


Gure negozio-ereduak funtziona dezan, identifikatu dugun jarduerarik garrantzitsuen arazoak konpontzearena da. Izan ere, gure enpresaren helburu nagusia, bezeroen bizitza erraztea eta hobetzea da. Horretarako, beraien egunerokoa antolatuz eta nutrizioan lagunduz beren osasun fisiko eta psikologikoa hobetzea da gure eginbeharra. Dena den, gure enpresaren funtsezko jarduera edo helburu nagusi eta orokorra, gizartearen osasuna hobetzea da eta horretan laguntzeko sortuta dago gure Fitore aplikazioa. Beste modu batera esanda, gure aplikazioa, gure bezeroek beren osasun fisiko eta psikologikoa hobetzeko tresna bat izango da. Horretan laguntzeko tresna bat dela diogu, aplikazioaren alor bat nutrizioaren ingurukoa izango baita.



Alor honi dagokionez, aurretik garbi utzi dugun bezala, gure aplikazioak alor honetan eskuragarri izango dituen atalei esker (dieta pertsonala, informazioa...) gure bezeroek beren dieta hobetuko dute eta horrekin batera beren osasun fisikoa asko suspertuko dute. Osasuna hobetzeko helburu horretan, nahiz eta gizarteari horrela ez iruditu, zure egunerokoaren antolakuntza zuzen bat eramatea funtsezkoa izango da, psikologiki batez ere. Zeren eta, gure aplikazioaren beste alorra honi zuzendua izango da, planifikazioari zuzendua. Lehen aipatu bezala, gure bezeroak antola daitezen, Fitore aplikazioak agenda



FITORE



bat, egutegi bat, Coolinary-rekin kolaborazioa eta beste hainbat tresna eskaintzen ditu. Gainera, aplikazioak berak planifikatzen lagunduko die euren egunerokoan. Beraz, nutrizioan nahiz planifikazioan lagunduz, argi dugu gure helburu nagusia lortuko dugula, gure bezeroen osasun fisikoa eta psikologikoa hobetzea hain zuzen ere. Gainera, hori gutxi balitz bezala, gure bezeroek gure aplikazioak zabaltzen dituen oihitura onak mantenduz gero, beren bizitza zoriontsuagoa eta arrakastatsuagoa izatea lortuko dute.

Hala ere, jarduera oso garrantzitsua da enpresaren aplikazioa kudeatzeko, mantentzeko, eta baita sustatzeko ere. Izan ere, azken finean hori da gure enpresak eskaintzen duen produktua, jendeari bizitza erraztuko dion aplikazio bat.

Kanpoko enpresen esku utz daitezken eta utzi ezin daitezkeen jarduerari dagokionez, gure aplikazioa sortzeko lana ezingo genuke kanpoko enpresen esku utzi, izan ere, aspektu hori babestu egin behar dugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena delako. Bestalde, hala eta guztiz ere, marketing-a eta publizitatearen lana kanpoko beste enpresa baten esku utzi dezakegun lana da batez ere, bi jarduera hauek beste enpresa batek egiteak ez digulako balio erantsirik ematen.

Ondorioz, gure proiektuak funtziona dezan hainbat gauza egitea ezinbestekoa izango da. Alde batetik, banaketa edo garraio prozesu on bat edukitzea, baina hori funtsezko elkarreetan zehaztu genuen bezala, Coolinary enpresaren lana izango da. Aplikazio ulergarri eta erabilgarri bat sortzea ezinbestekoa da, izan ere, gure proiektuaren muina da, aplikaziorik gabe ez dugu proiekturik. Ondorioz, aplikazio on bat garatzea beharrezkoa dugu, hori hainbat programazio programa erabiliko ditugu. Aplikazio bat sortzea da lehentasuna.